# Peru Galbete



URAREN OLDEA - Cine expandido. “El agua ha diluido el pasado. Lo convirtió en agua estancada, superficie concebida desde arriba. Y todo lo que oculta, sólo porque lo oculta, es verdad”. Este concierto de música y proyección en directo surge del descubrimiento de unas diapositivas familiares, las cuales pasaron por una inundación que las transformó. Al igual que el agua con las diapositivas, el tiempo transforma los recuerdos. Y así, esta pieza de cine expandido quiere hablar de memoria, recuerdos, tiempo y de lo que somos o dejamos de ser. La música también, con efectos de voz y loops, va y viene en el tiempo, para comprender al fin que no hay más que el ahora.

URA SARTU ZEN BARRURA - Cortometraje documental. Cuando era pequeño hubo una gran inundación en el barrio. Todos sobrevivimos, pero no lo hicieron muchos recuerdos que guardábamos en la bajera. Mi aita rescató y limpió una a una varias diapositivas. Sin embargo, el agua les ha dado otro significado.

NOR ZARA ZU? - Disco-libro. El álbum musical “Nor Zara Zu?” se publicó en internet el 24 de abril de 2020, por una necesidad de compartir algo más que palabras y video-llamadas durante el confinamiento. Entre diferentes canciones y subtemas, sobre todo habla de una pérdida de uno mismo y un encontrarse sin querer. Después vino la idea de hacer un disco-libro, que además del CD o código de descarga contendría las letras de las canciones y otros escritos y dibujos que complementan la música.



URAREN OLDEA - Zinema hedatua. “Urak iragana desegin du. Ur geldi bilakatu zuen, goitik ikusten den gainazal. Eta ezkutuan duen guztia, ezkutatze hutsagatik, egia da”. Musika-kontzertu eta zuzeneko proiekzio hau familiako diapositiba batzuk aurkitzean sortu zen; diapositiba horiek uholde batzuk bizi izan zituzten, eta itxuraldatu egin ziren. Urak diapositibekin egin bezala, denborak ere oroitzapenak eraldatzen ditu. Eta, hala, zinema hedatuko pieza honek memoriaz. oroitzapenez, denboraz eta garenaz edo dagoeneko ez garenaz hitz egin nahi du. Musika ere, ahots-efektu eta loopekin, badoa eta badator denboran, azken batean oraina baino ez dagoela ulertzeko.

URA SARTU ZEN BARRURA - Film labur dokumentala. Txikia nintzenean, uholde handi bat izan zen auzoan. Guztiok atera ginen bizirik, baina ez, ordea, etxabean gordetzen genituen oroitzapen asko. Aitak zenbait diapositiba salbatu eta garbitu zituen, banan-banan. Hala ere, urak beste esanahi bat eman die.

NOR ZARA ZU? - Diska-liburua. “Nor Zara Zu?” musika-albuma 2020ko apirilaren 24an argitaratu zen Interneten, konfinamendu-garaian hitzak eta bideo-deiak baino zerbait gehiago partekatzeko beharraren ondorioz. Zenbait abestiren eta azpigairen bidez, batik bat norberaren galeraz eta nahi gabe aurkitzeaz hitz egiten du. Ondoren, diska-liburu bat egiteko ideia etorri zen, eta hark, CDaz edo deskargatzeko kodeaz gainera, abestien letrak eta musika osatzen duten beste idatzi eta marrazki batzuk jasotzen zituen.








NOR ZARA ZU?
PERU GALBETE



Trabaja paralelamente en el campo audiovisual y en la producción musical. Tras finalizar en 2011 los estudios de Dirección de Fotografía en la Escuela de CineKinema de Bilbao, compagina trabajos de director de fotografía y operador de cámara con la música. En 2015 se traslada a Escocia para estudiar en la Music Box de Edinburgh College. Aquí empieza su andadura musical, publicando en 2016 su primer disco, titulado "Peru". Un año después se traslada a Bolivia a realizar una residencia artística en la Comunidad IntiWara Yassi. En un bosque local crea y graba las 13 canciones que componen el proyecto "Voces de la Selva". La mezcla y presentación de este último álbum se hizo en el centro social Martadero (Cochabamba) a finales de 2017. Recientemente ha publicado su tercer trabajo musical en formato disco-libro, bajo el nombre "Nor zara zu?". Actualmente, se interesa por la experimentación vocal y la improvisación. En los últimos años ha dado forma a numerosos proyectos, así cómo: la intervención que realizó dentro del ciclo Visitas Experimentales en la exposición "Abstraktu!" en Hiriartea, la performance "La mímica de tu voz" de Romina Casile o el concierto "La voz presa" en el Museo de Navarra dentro del ciclo "9 Soles". También colabora en diferentes proyectos como: el grupo musical Hatxe, con la pianista Idoia Hernandez; el colectivo Zuzuzu, que trabaja la interdisciplinaridad; la obra de poesía y música "H-artzetik, poesia musuzapietan" creada en conjunto con el colectivo Txakur Gorria; o la experiencia sonora "Post- kosmos" con la compositora Paula Olaz (esta pieza solo se ha mostrado en tres ocasiones, en Tabakalera, Baluarte y el Planetario). En el ámbito audiovisual, presentó su segundo cortometraje "Ura Sartu Zen Barrura" en el festival Punto de Vista 2020. Y recientemente ha creado el concierto musical/visual "Uraren Oldea", que une las dos disciplinas que siempre ha tratado por separado: la música y el cine. Ambos proyectos han sido realizados en el Centro Huarte.

Ikus-entzunezkoen arloan zein musika-ekoizpenarenean lan egiten du aldi berean. Bilboko CineKinema Eskolako Argazki Zuzendaritzako ikasketak bukatu ondoren (2011), batera egiten ditu argazki-zuzendaritzako eta kamera-operadoreko lanak eta musika. 2015ean, Eskoziara joan zen Edinburgh Collegeko Music Box-en ikastera. Hantxe hasi zen haren ibilbide musikala. Izan ere, 2016an, lehen diska argitaratu zuen ("Peru"). Urte bat geroago, Boliviara joan zen egonaldi artistiko bat egitera IntiWara Yassi komunitatean. Tokiko baso batean, "Voces de la Selva" izeneko proiektua osatzen duten 13 abestiak konposatu eta grabatu zituen. Album horren nahasketa eta aurkezpena Martadero (Cochabamba) gizarte-zentroan egin zituen, 2017ko amaieran. Arestian, hirugarren musika-lana argitaratu du, diska-liburua formatuan ("Nor zara zu?"). Gaur egun, ahots-esperimentazioan eta inprobisazioan jarri du arreta. Azken urteetan, proiektu asko gorpuztu ditu, hala nola: Hiriartean "Abstraktu!" erakusketaren barruko Bisita Esperimentalak zikloan egin zuen parte-hartzea, Romina Casileren "La mímica de tu voz" proiektuan egindako performancea, eta "La voz presa" kontzertua Nafarroako Museoan, "9 Soles" zikloaren barruan. Halaber, hainbat proiektutan kolaboratzen du, esate baterako: Hatxe musika-taldean, Idoia Hernandez piano-jotzailearekin; Zuzuzu kolektiboan, zeinak diziplinartekotasuna lantzen baitu; "H-artzetik, poesia musuzapietan" poesia- eta musika-lanean, zeina Txakur Gorria kolektiboarekin batera sortu baitu; edo "Post-kosmos" soinu-esperientzian, Paula Olaz musikagilearekin (hirutan baino ez da erakutsi lan hori, Tabakaleran, Baluarten eta Planetarioan). Ikus-entzunezkoen alorrean, bere bigarren film laburra ("Ura Sartu Zen Barrura") aurkeztu zuen Punto de Vista jaialdiaren 2020ko edizioan. Eta, arestian, "Uraren Oldea" kontzertu musikala/ikus-entzunezkoa sortu du, beti bereizita jorratu dituen bi diziplinak uztartzen dituena: musika eta zinea. Bi proiektuak Uharte Zentroan egin dira.

Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO